



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

ARRETA PRINTZIPIOA

Sarrera

Arreta-printzipioak ahalbidetu egiten du erantzun azkarra ematea gizaki, animalia edo landareentzat arriskuren bat sortzen denean edo ingurumena babestu behar denean. Are gehiago, zientzia-datuek ezin dutenean arrisku-maila erabat zehaztu, printzipio honetara jotzeak ahalbidetu egiten du, esate baterako, osasunerako kaltegarriak izan daitezkeen produktuen hedapena ekiditea eta baita merkatutik ateratzea ere.

Arreta-printzipioa Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 191. artikuluan aipatzen da. Bere helburua da ingurumenaren babes-maila handia bermatzea, eta horretarako, arriskuren bat sortzen denean neurri prebentiboak hartzen dira. Nolanahi ere, praktikan, bere ezarpen-esparrua askoz ere zabalagoa da, eta honako hauetara iristen da: kontsumitzaileen politika, elikadurari buruzko Europako legedia eta gizaki, animalia eta landareen osasuna.

Arreta-printzipioaren aplikazioari buruzko jarraibide-lerro bateratuak ezartzen dira.

Noiz jotzen den arreta-printzipiora

Batzordearen arabera, arreta-printzipiora jo daiteke fenomeno, produktu edo prozesu jakin batek zientzia-ebaluazio objektiboaren bidez atzemandako eragin biziki arriskutsuak izan ditzakeenean, baldin eta ebaluazio horrek ez badu ahalbidetzen arriskua behar besteko ziurtasunez zehaztea.

Arreta-printzipioa, hortaz, arriskuaren analisiaren esparruan (arriskuaren ebaluazioaz gain, arriskuaren kudeaketa eta jakinarazpena ere barne hartzen ditu) sartzen da, eta are zehatzago, erabakiak hartzeko faseari dagokion arrisku-kudeaketaren esparruan.

Batzordeak azpimarratu egin du arreta-printzipiora bakarrik jo daitekeela arrisku handia dagoela uste den kasuetan, eta ezin denean, inola ere, arbitrarioki hartutako erabakirik justifikatu.

Hori horrela, arreta-printzipioa justifikaturik egongo da, bakarrik, honako hiru baldintza hauek betetzen direnean:

- **ondorio potentzialki kaltegarriak identifikatzean;**
- **eskura dauden zientzia-datuak ebaluatzean;**
- **zientzia-zalantza handitzean.**

Neurri prebentiboak

Arriskua kudeatzeaz arduratzen diren agintariek jardutea edo ez jardutea erabaki dezakete, arrisku-mailaren arabera. Arriskua handia bada, hainbat kategoriatako neurriak har daitezke: neurriko jarduera juridikoak, ikerketa-programen finantzazioa, publikoari informazioa emateko neurriak, etab.

Jarraibide bateratuak

Arreta-printzipiora jotzen denean, **hiru printzipio zehatzi** jarraiki egin behar da:

- ✓ zientzia-ebaluazioa. Ahalik eta osoena izan behar du, eta ahal den neurrian, zientzia-zalantzaren maila ere zehaztu behar da.
- ✓ arriskua eta ezer ez egiteak ekar ditzakeen ondorioak zehaztea.
- ✓ alde interesdun guztiek parte hartzea neurri prebentiboetarako buruzko azterketan, zientzia-ebaluazioaren ondorioak edo arriskua zehaztuta izan bezain laster.

Gainera, arriskuen kudeaketarako **printzipio orokorrak** ere aintzat hartu behar dira arreta-printzipiora jotzen denean. Honako bost printzipio hauek dira:

- ✓ proportzionaltasuna hartutako neurrien eta hautaturiko babes-mailaren artean;
- ✓ bazterketarik ez egitea neurriak aplikatzean;
- ✓ antzeko egoeretan hartutako neurriekin koherentzia gordetzea edo antzeko planteamenduak erabiltzea;
- ✓ jardutearen ala ez jardutearen onurak eta arazoak;
- ✓ neurriak berrikustea zientziaren eboluzioaren arabera.

Frogatu beharraren karga

Kasu gehienetan, Europako kontsumitzaileek eta horien elkarte ordezkariak frogatu egin behar dute prozedura edo produktu batek, behin merkaturatuta, duen arriskua. Salbuespen bakarra sendagaiena, pestizidena eta elikagai gehigarriena da.

Hortaz, arreta-printzipioari jarraiki egindako jarduera batean produktoreari, ekoizleari edo inportatzaileari arriskurik ez dagoela frogatzea eska dakiok. Aukera hori kasurik kasu aztertu behar da, ezin da produktu eta merkaturatze-prozesu guztietara hedatu.